

Basajaun Harrapatua

Maryse Urruty-k kontuata

Basajaun maiz ikazkinekin lanean ari zen. Zuhaitz trunkoak arrailtzen laguntzen zituen. Egur arrailak erabiltzen zituzten ikatza egiteko. Egun batez, ikazkin baten aizkora trunkoan kokatu zen. Basajaun segidan ikazkinarengana joan zen eta trunkoaren 2 parteak zabaldu zituen. Bainan ikazkinak bipilki bere tresna kendu zuen eta egurra hetsi zen Basajaunaren eskuak bertan harrapatuz. Gure Basajauna preso zen!

Izakinak bere herriko plazara eraman zuen jendeek ikus dezaten nor harrapatu zuen. Bulta baten buruan ikazkinak Basajaun oihanera eraman zuen eta askatu zuen. Basajaun segidan oihanaren zolan den harpera joan zen.

Ondoko egunetan ikazkinak bere lana segitu zuen oihanean, trunkoak moztuz eta ikatza eginez, bainan denbora guttira herexarik utzi gabe desagertu zen...

